

Sarrikotapea

Aurkibidea

Udalerria: Sarrikotapea

Sarrera



Pettarra eskualdean dagoen
Zuberoako udalerria,
Bearnoko mugan.

- **Biztanleak:** 247
- **Euskaldunak:** %63,64

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **5**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **5**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika

Hizlariak



Herve (1930)

Bildozen jaioa, Sarrikotapean bizi da.



Georges Recalt (1922)

Pettarra eskualdeko Sarrikotapean jaio zen eta herri berean bizi izandakoa da. Elkarrizketa honetan Hervék ere parte hartzen du, Bildozen jaioa eta Sarrikotapean bizi dena.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Zartagina, sukaldeko ontzi bakarra (SKP-001/002)

Lehen lan guztiak eskuz egiten ziren. Ez zen laborantzan makinarik. Beheko sua urte guztian. Zartagina. beste ontzirik ez zen sukaldean. Baina ez zen goserik pasatzen, beti zen jatekoa. Jende anitz zen etxetan lanerako.

2. Erresistentzian zebilela alemanek zauritu zuten (SKP-001/003)

Erresistentzian ibili zen Georges II. Mundu Gerran. Zauritu egin zuten eta ia besoa galdu zuen. Ospitaletik ihes egin zuen, alemanek atzemango zuten beldurrez. 80 aleman hartu zituen preso Georges-en taldeak, eta alemanak haiek askatzera etorri zirenean zauritu zuten.

3. Alemanen alde jokaturako emaztekiei ilea moztu (SKP-001/005)

Beti gordeta eta goseak erresistentzian ibili zirenean. Bazen alemanen aldeko jendea, baina gutxi. Zenbait emakumeri ilea moztu zioten zigor gisa.

4. Lixozeko ia etxe guztietan badira euskaldunak (SKP-001/009)

Sarrikotapea Mauleko Kantonamendukoa da, Arüe Donapaleukoa eta Lixoze Bearnokoa. Lixozen euskaldun anitz da, ezkontzaz joandako emazteak denak; bi etxe kenduta, beste guztietan badira euskaldunak.

5. Baratzean lanean egunero (SKP-001/011)

Baratzean lan egiten du oraino Georgesek. Beti izaten dira egitekoak. Ez omen zaio inoiz lanari utzi behar. Barazkiak zerrendatzen ditu.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com